

66. atala: Taldean

## Eurovision / Erasmus

66.1.- Entzun audioa eta taldeka erantzun galderai:

1. Zergatik egin dio errieta Eskisabel kapitainak Johnsoni?
2. Zein herrik hartuko du parte Eurovisionen? nori esker lortu du aukera?
3. Zer iruditu zaie Eurovisionen parte hartzea astronautei?
4. Zergatik konparatzen ditu Eurovision eta Erasmus Tasiok?

66.2.- Euskal Herria Eurovisionera iritsi da azkenean. Gogorra izan da, baina merezi izan du. Orain ordezkaria bidali behar dugu. Beheko hauek dira finalistak, eta zuek, epaimahaikideok, abestiak entzun, hutsuneak bete, eta zeinek ordezkatzeko gaituen aukeratu behar duzue.

Kontrako eztarriko bandaren reggaea

<https://www.youtube.com/watch?v=Af9-kKgE0rg>

Maite zaitut

<https://www.youtube.com/watch?v=TgqnJ6yvaho>

Nahia

<https://www.youtube.com/watch?v=cWs1nswaaxw>



**66. atala: Taldean**

<p><b>Kontrako eztarriko bandaren reggaea</b>                  Algaran eta festan gabiltza                  egun santu guzti-guztian                  larru sendo-sendoa daukagu                  makillaje _____                  Udako kantu bat dakargu                  neguko euri-jarioan                  ez al dakizue _____ dela                  gure hemisferioan                  Ooooooooooh                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako eztarria                  Andre batek gaur esan digu                  “esan sekretua, aizue,                  beti _____ egoteko                  zer hartu ohi duzue?”                  Ez da _____, ez da droga                  Ez da arrautza, ez xingarra,                  Sasoiak damaigu _____                  umoreak indarra                  Ooooooooooh                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako eztarria                  Ooooooooooh                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako                  Kontrako eztarria, je!                  Kontrako eztarria                  Kontrako...                  Kontrako eztarria</p>	<p><b>Nahia</b>                  Kaixo mutil                  Ni Nahia naiz                  Zure inguruan dabilen                  bolkan izkutua                  Ez bestea _____                  Hemen dago, bertan dago, behar duzuna</p> <p>Kaixo mutil                  Ni Nahia naiz                  Zure atzetikan dabilen                  Betiko _____ bat                  Baina ez zara konturatzen                  _____ nago zure onduan                  Zatoz, zatoz                  Nere _____ probatu nahi?                  zaude? Non                  Zure _____                  I'm waiting for you                  Who am I?                  Ni naiz zure Nahia                  Baina zein ote naiz                  _____ pentsatu ta                  Ukitzen hasten naiz                  Behin martxa hartuta ni laster nago                  _____                  Ez ahaztu nere izena                  Ni naiz zure Nahia                  Baina zein ote naiz                  Zugan pentsatu ta                  Ukitzen hasten naiz                  Behin martxa hartuta ni laster nago blai,6</p> <p>Ni naiz, ni naiz zure Nahia                  Zatoz hona,                  Nire barnera                  Biok _____ etzanda                  Egin dezagun behingoz                  Ohean _____                  Busti nazazu osorik Hori da behar                  dudana                  Mmmm, zatoz, zatoz                  Ez dudarik izan                  Non zaude?                  Zure alboan                  Bero, bero                  Ez _____                  I'm waiting for you                  Who am I?                  Ni naiz zure Nahia                  Baina zein ote naiz                  Zugan pentsatu ta                  Ukitzen hasten naiz                  Behin martxa hartuta ni laster nago blai,                  Ez ahaztu nere _____                  Ni naiz zure Nahia                  Baina zein ote naiz                  Zugan pentsatu ta                  Ukitzen hasten naiz                  Behin martxa hartuta ni laster nago blai,                  Ni naiz, ni naiz zure Nahia</p>	<p><b>Maite zaitut</b>                  Koloretako ametsak                  esna nagoenean                  eta ezin loak hartu                  _____ iristen denean.</p> <p>Saltoka hasita hegan                  egiteko gogoa,                  nire _____ taupaka                  aire ertzera doa.</p> <p>Elkarrekin hankaz gora                  _____ behera jartzean,                  tunelean sartu eta                  irrintzika hastean,                  bitxiloreekin pultsera                  egin dizudanean,                  _____ begira                  hauxe nahi dizut esan:</p> <p>Maite zaitut,                  maite- maite zaitut;                  pila, pila, pila patata tortilla!                  Maite zaitut. Maite-maite zaitut,                  ilargiraino eta buelta maite zaitut</p> <p>Begietako dirdira,                  _____ ahoan,                  ezin ditut ezkutatu                  zu ikusterakoan;                  hanka eta eskuetan,                  gorputzean, _____;                  nire bihotza taupaka                  aire ertzera doa.                  Elkarrekin _____                  margotu dugunean,                  ispiluan nire izena                  idatzi duzunean,                  _____ piztu eta                  doinu hau entzutean,                  begietara begira                  hauxe nahi dizut esan:</p> <p>Maite zaitut,                  maite-maite zaitut;                  pila, pila, pila patata tortilla!                  Maite zaitut.                  Maite-maite zaitut,                  _____ eta buelta maite zaitut</p>
---	---	--



66. atala: Taldean

## Transkripzioa EUROVISION / ERASMUS (03:05)

T- Kapitaina?

E- Bai, esan.

T- Azkenean onartu al dute Euskal Herria datorren Eurovision jaialdian? Nola dago kontu hori?

E- Ez dakit, Tasio. Galdetuko dut eta esango dizut beranduago. Non da Johnson?

T- Ez da esnatu oraindik.

E- Txantxetan ari zara, ezta?

E- Johnson, zu oraindik ez zara jabetu hau ez dela udaleku-kanpamentua, ezta?

K- Nahi zenuke, bai, ni boy scout uniformeaz jantzita ikusi, biziosilla.

E- Ez nago tontakerietarako, Johnson.

K- Ba akordatzen naiz ba tontakeriak gustatu zitzaizkizun gau hartaz...

E- Jhonson! Ez ezazu hitz bakar bat gehiago esan.

K- Zure aginduetara, bigotitos.

E- Tasio, hor zaude?

T- Bai, kapitaina.

E- Albiste on bat zuretzat. Urte-mordoan ezezkua jaso ostean, azkenean Euskal Herriak Eurovisionen parte hartzeko gonbitea jaso du.

T- Joder! A ze albiste ona!

E- Bozketa gogorra izan da, baina azkenean boto batengatik sartu da.

T- Norena izan da boto erabakiorra? Katalunia? Lienchestein? Irlanda?

E- Espainiak bozkatu du alde.

K- Ez dirudizu oso pozik.

T- Psss

K- Nik uste nuen nahi zenuela Euskal Herriak Eurovisionen ere erridikulua egitea.

T- Bai, beno...

K- Baina orduan pozik zaude edo ez?

T- Baietz ba, baina Espainiari esker sartu izana... Ez zekiat ... Ez zaidak gustatzen... Horrek dena aldatzen dik.

K- Ze inporta dio horrek, ba?

T- Hik ezagutu huen Erasmus programa, ezta?

K- Bai, ni izan nintzen Erasmusera joan zen azken belaunaldietako ikasleetakoa bat.

T- Ba, zera... Erasmusetik bueltan, hire bikotea sexuan askoz trebeagoa dela konturatzen haizenean sentitzen duan gauza berbera sentitzen diat.

K- Ba ez dut oraindik ulertzen.

T- Ba, batetik, badakik sexu-kontuan irabazten aterako haizela, baina, bestetik, oso zapore mikatzeko garaipena izaten dela.

K- Eskisabel kapitaina?

E- Bai, Johnson.

K- Zu Erasmusen egon zinen, ezta?

E- Zer?

K- Erasmusen badakizu... urtebete atzerrian ikasten.

E- Bai, badakit, baina nola dakizu?

K- Ez, ez nekien baina bihozkada bat izan dut.

## Erantzunak

### 66.1.-

1. Johnson oso berandu esnatu eta honek adarra jo diolako. Besteren artean elkarrekin pasatako gaua gogorarazi dio Kevinek.
2. Euskal Herriak hartuko ahal izango du parte Eurovisionen, Espainiaren aldeko botoagatik.
3. Tasiok interes handia zuen Eurovisionen parte hartzearekin. Hala ere, Espainiaren botoagatik sartzea ez zaio gustatu.
4. Bi kasuetan helburua lortzen delako, baina lortzeko modua ez delako gozoa. Horregatik egiten du Eurovisionen eta Erasmusen arteko konparazioa. Bietan lorpen bat dago, baina horra iristeko modua ez da gustukoa.

66. atala: Taldean

<p><b>Kontrako eztarriko bandaren reggaea</b>          Algaran eta festan gabiltza          egun santu guzti-guztian          larru sendo-sendoa daukagu          makillaje <b>azpian</b>          Udako kantu bat dakargu          neguko euri-jarioan          ez al dakizue <b>uda</b> dela          gure hemisferioan          Ooooooooooh          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako eztarria          Andre batek gaur esan digu          “esan sekretua, aizue,          beti <b>umorean</b> egoteko          zer hartu ohi duzue?”          Ez da <b>ardoa</b>, ez da droga          Ez da arrautza, ez xingarra,          Sasoiak damaigu <b>bizipoza</b>          umoreak indarra          Ooooooooooh          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako eztarria          Ooooooooooh          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako          Kontrako eztarria, je!          Kontrako eztarria          Kontrako...          Kontrako eztarria</p>	<p><b>Nahia</b>          Kaixo mutil          Ni Nahia naiz          Zure inguruan dabilen          bolkan izkutua          Ez besteak <b>begiratu</b>          Hemen dago, bertan dago, behar          duzuna          Kaixo mutil          Ni Nahia naiz          Zure atzetikan dabilen          Betiko <b>lagun</b> bat          Baina ez zara konturatzen  <b>Zain</b> nago zure onduan          Zatoz, zatoz          Nere <b>sua</b> probatu nahi?          Non zaude?          Zure <b>alboan</b>          I'm waiting for you          Who am I?          NI naiz zure Nahia          Baina zein ote naiz  <b>Zugan</b> pentsatu ta          Ukitzen hasten naiz          Behin martxa hartuta ni laster nago  <b>blai</b>,          Ez ahaztu nere izena          NI naiz zure Nahia          Baina zein ote naiz          Zugan pentsatu ta          Ukitzen hasten naiz          Behin martxa hartuta ni laster nago          blai,          Ni naiz, ni naiz zure Nahia          Zatoz hona,          Nire barnera          Biok <b>izerditan</b> etzanda          Egin dezagun behingoz          Ohean <b>eztanda</b>          Busti nazazu osorik          Hori da behar dudana          Mmmm, zatoz, zatoz          Ez dudarik izan          Non zaude?          Zure alboan          Bero, bero          Ez <b>lotsatu</b>          I'm waiting for you          Who am I?          NI naiz zure Nahia          Baina zein ote naiz          Zugan pentsatu ta          Ukitzen hasten naiz          Behin martxa hartuta ni laster nago          blai,          Ez ahaztu nere <b>izena</b>          NI naiz zure Nahia          Baina zein ote naiz          Zugan pentsatu ta          Ukitzen hasten naiz          Behin martxa hartuta ni laster nago          blai,          Ni naiz, ni naiz zure Nahia</p>	<p><b>Maite zaitut</b>          Koloretako ametsak          esna nagoenean          eta ezin loak hartu  <b>gaua</b> iristen denean.</p> <p>Saltoka hasita hegan          egiteko gogoa,          nire <b>bihotza</b> taupaka          aire ertzera doa.</p> <p>Elkarrekin hankaz gora  <b>buruz</b> behera jartzean,          tunelean sartu eta          irrintzika hastean,          bitxiloreekin pultsera          egin dizudanean,  <b>begietara</b> begira          hauxe nahi dizut esan:</p> <p>Maite zaitut,          maite- maite zaitut;          pila, pila, pila patata tortilla!          Maite zaitut. Maite-maite zaitut,          ilargiraino eta buelta maite zaitut</p> <p>Begietako dirdira,  <b>irribarrea</b> ahoan,          ezin ditut ezkutatu          zu ikusterakoan;          hanka eta eskuetan,          gorputzean, <b>dardara</b>;          nire bihotza taupaka          aire ertzera doa.          Elkarrekin <b>ortzadarra</b>          margotu dugunean,          ispiluan nire izena          idatzi duzunean,  <b>irratia</b> piztu eta          doinu hau entzutean,          begietara begira          hauxe nahi dizut esan:</p> <p>Maite zaitut,          maite-maite zaitut;          pila, pila, pila patata tortilla!          Maite zaitut.          Maite-maite zaitut,  <b>ilargiraino</b> eta buelta maite zaitut</p>
--	---	--

